



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

22. zenbakia

Astelehena, otsailaren 3a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

- 2/2020 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

1311

- 3/2020 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

1311

1.1.3. Foru Aginduak

- 12/2020 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko Ikuskapen Plana onesten duena 2020. urterako.

1311

- 3E/2020 FORU AGINDUA, urtarrilaren 14koa, Herri-tarrekiko Harremanetako kontseilariak emana, Herri-tarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura aldatzen duena bulegoen mailan.

1314

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 7/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: ureztatzaileen elkarteak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz

kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak. DDBN: 493620.

1315

- 8/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: toki entitateen titulartasunekoak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak. DDBN: 493658.

1315

- 9/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako laguntza hauen oinarri arautzaileak: 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan kalte-tutako elementuak konpontzeko laguntzak. DDBN: 493673.

1316

- 486/2019 EBAZPENA, abenduaren 31koa, Landa Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez oinarri arautzaileak onesten baitira azukre-erremolatxaren laboreentzako "de minimis" araubideko laguntzak emateko, eta 2020ko laguntza deialdia ere onesten baita. DDBN identifikazioa: 492522.

1316

ORRIALDEAORRIALDEA**1.7. BESTELAKOAK**

- 2/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 13koa, Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez xedatzen baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzeta Batzordearen Erabakia, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen gainekoa.

1319

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA****ANTOLATUAK** 1320

- MURILLO EL FRUTO 1320

4. PROZEDURA JUDIZIALAK 1321**6. BESTELAKO IRAGARKIAK** 1322**6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK**..... 1322**6.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK**..... 1327

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

2/2020 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak aditzera eman du bere plantilla organikoa aldatu behar dela, erakundeak benetan dituen beharretara moldatzeko.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiak horren aldeko txostena egin du.

Horrenbestez, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita bati egindako bilkuran harturiko erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan lanpostu batzuk sortzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa honela aldatzen da:

Lanpostu bat sortzen da plantilla organikoan, ondotik aipatzen dena; behar den zuzkidura ekonomikoa du indarreko Gastuen Aurrekontuaren I. kapituluaren:

Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

Lehendakariak eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia:

—Aholkulari juridikoa. Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, 10913 zenbakia duena plantilla organikoan.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.—Foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko gaikuntza.

Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena.—Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an.—Nafarroako Gobernu lehendakaria, María Chivite Navascués.—Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.

F2001122

3/2020 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak aditzera eman du bere plantilla organikoa aldatu behar dela, erakundeak benetan dituen beharretara moldatzeko.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiak horren aldeko txostena egin du.

Horrenbestez, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita bati egindako bilkuran harturiko erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan lanpostu batzuk sortzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa honela aldatzen da:

Lanpostu batzuk sortzen dira plantilla organikoan, ondotik aipatzen direnak; behar den zuzkidura ekonomikoa dute indarreko Gastuen Aurrekontuaren I. kapituluaren:

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia.

—Gizarte-hezitzailea. Lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, B mailakoa, plantilla organikoan 10905 zenbakia duena.

—Gizarte-langilea. Bi lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, B mailakoak, 10906 eta 10907 zenbakiak dituztenak plantilla organikoan. Ingeleseko B1 maila edukitzea eskatzen da bietan.

—Administrari laguntzailea. Hiru lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, D mailakoak, plantilla organikoan 10908, 10909 eta 10910 zenbakiak dituztenak.

Idazkaritza Tekniko Nagusia.

—Administrari laguntzailea. Bi lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, D mailakoak, plantilla organikoan 10911 eta 10912 zenbakiak dituztenak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.—Foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko gaikuntza.

Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena.—Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an.—Nafarroako Gobernu lehendakaria, María Chivite Navascués.—Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.

F2001123

1.1.3. Foru Aginduak

12/2020 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko Ikuskapen Plana onesten duena 2020. urterako.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen xede nagusia da herritarren gizarte ongizatea lortzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz. Era berean, foru lege horren xedea da gizarte zerbitzuen sistema bat itxuratzea, halako moduan non bermatuko baita zerbitzuak pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea ziurtatuko dituzten baldintza onenetan ematen direla.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen aplikazio eremua 3. eta 4. artikuluetan zehaztuta dago. Izan ere, artikulua horietan ezartzen da zer den gizarte zerbitzuen sistema eta zeintzuk diren gizarte zerbitzu horien hartzaileak. Bestalde, 6., 7. eta 8. artikuluetan gizarte zerbitzu horien hartzaileen eskubide eta betebeharrak ezartzen dira.

Esparru juridiko horretan, 69. artikulua dioenez, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen sistemakoak diren gizarte zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezkoa izanen da, zerbitzuok 75. artikuluan aurreikusitako erregistroan inskribaturik egoteaz gain, 70. artikuluan aurreikusitako administrazio baimenak lortzea eta haien eustea. Baimen horien xedea da baldintza jakin batzuk eta kalitatearen gutxienezko estandarrak beteko direla bermatzea.

Azkenik, aipatu foru legearen 83. artikulua ezartzen duenez, foru lege horren aplikazio eremuan dauden entitate publiko eta pribatuek egindako jarduketak guztiak egonen dira gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuaren ikuskapenaren eta kontrolaren mende.

Eskubide Sozialetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 268/2019 Foru Dekretuak Idazkaritza Tekniko Nagusiari esleitzen dio Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean xedatutakoa betetzen den jakiteko kontrola eta ikuskapena egiteko ardura, hau da, ea gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuek eta zerbitzu horien hartzaileek betetzen ote duten lege horretan xedatutakoa. Ikuskapen Atalak ikuskapen planak prestatuko ditu gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuetarako, eta ikuskapen lana kontrolatu eta koordinatuko du. Azkenik, Ikuskapen Atalak gizarte gaien, familiarren eta adingabeen babesaren

esparruan foru dekretu horretan aurreikusitako eskudantziak izanen ditu, bereziki, honako hauek:

a) Gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuek eta horien hartzaileek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean eta aplikatzeak diren bestelako arauetan xedatutakoa betetzen ote duten kontrolatu eta ikuskatzea, departamentuko gainerako unitate organikoekin elkarlanean.

b) Gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuen baimen administratiboak kudeatu eta tramitatzea.

Orobat, begiratu du betetzen direla egoitzetako plazak, eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko esparru-akordioaren agiri arauemaileak eta klausula teknikoak, baita Nafarroako Foru Komunitatean mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroen zerbitzuaren esparru-akordioaren ere.

Beraz, hortik ondorioztatzen da gizarte zerbitzuak ikuskatzeko esku-mena, aurrean esandako guztiaren arabera, ez dela bakarrik hartu behar zentro eta zerbitzuek baliabideen eta eginkizunen arloan indarreko araudia nola betetzen duten eta zerbitzu-emaileek sinatutako kontratuetako agiri arauemaileak eta klausulak zenbateraino betetzen diren kontrolatzeko eskumen gisa, zeren gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak zaindu eta errespetatzen ote diren ere kontrolatu behar baitira.

Gainera, pertsonen beren beharretarako laguntza egokia, hots, laguntza osoa, espezializatua eta pertsonalizatua jaso dezaten ere zaindu behar du.

Eta premisa horiek izanen dira Ikuskapen Plan honen jarduketa-lerro nagusien oinarriak.

2020. urterako Ikuskapen Planak baditu aurreko planarekiko desberdintasun batzuk.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) eta zerbitzu-emaileek sinatutako itunak edo kontratuak eta arauak betetzen ote diren kontrolatzeko ikuskapen lana egiten jarraituko da, entitate horiek Nafarroako Gobernuak finantzaturik ematen dituzten zerbitzuak administrazio kontratugileak ezarritako baldintzei jarraiz eta hark eskatutako kalitatearekin egiten direla egiaztatzea.

Beritasun gisa, egiaztatuko da noraino betetzen diren esparru-akordio honen agiri arauemaileak eta klausula teknikoak eta administratiboak: egoitzetako plazak, eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko esparru-akordioa. Zehazki, aztertuko da ea zerbitzuak ematen dituzten entitateek baduten berdintasun planik eta zer prestakuntza duten alor horretan entitatearen urteko prestakuntza planaren barnean. Orobat, egiaztatuko da noraino konplitzen diren langileen arloko betebeharrak eta ratio orokor lotesleak, eta noraino betetzen diren klausula teknikoak pertsona ardatz duen arretaren eredia ezartzeari dagokionez eta bizitza historiei ekiteari dagokionez, lan metodo gisa eta erabiltzailearentzako arreta pertsonalizatu gisa.

Aurreko planetan bezala, egiaztatuko da badagoen erreferentziak langilearen figura; baina, aurtun, zorrotasun handiagoz aztertuko da, bermatzeko askotarikoa dela figura hori, pertsona ardatz duen arreta eredian eta banakako arreta planetan oinarritzakoa baita, eta erabiltzaileak hautatzen duela, harekiko duen kidetasuna errespetatuz.

Esparru horretan, ikuskapen arruntak eginen dira eguneko arretako zenbait zerbitzutan eta hainbat egoitzatan: zaharrei edo adingabeei arreta ematekoak, mendekotasunaren arlokoak, eritasun mentala edo desgaitasuna dutenentzakoak eta gizarte bazterketaren arlokoak. Bereziki azpimarratuko da zerbitzu horiek kudeatzen dituzten entitateek errespetatu behar dituztela erabiltzaileen eskubideak, zehazki, arreta osoa, berariazkoa eta beren beharretara egokitutakoa jasotzekoa eta zerbitzua emateko baldintza guztiak onarpen-kontratuaren bidez ezagutzekoa.

Zehazki, Ikuskapen Atalak 2019ko Ikuskapen Plana gauzatzeari buruz egindako eskaeren eta/edo ohartarazpenen betearazpena berrikusiko da, bai eta zerbitzu horiek izandako salaketak aztertzean egindako eskaeren eta/edo ohartarazpenena ere. Orobat, egiaztatuko da noraino betetzen diren atxikipenei buruzko indarreko araudia eta aplikatu beharreko beste erregulazio batzuk, konparazio batera, erantzukizun zibileren aseguruak, banakako arreta planak, protokoloak eta erregistroak.

Halaber, egiaztatuko da ikuskatzen diren zerbitzuen antolamendua, eginkizunak, lan planak eta langileen banaketa proportzionala eta egokia dela asteko egun guztietan eta eguneko eta gaueko ordu guztietan, halako eran non behar bezalako zerbitzua ematen baitzaie erabiltzaileei. Bereziki, esparru-akordioari atxikitako zentro guztietan egiaztatuko da zentroetako langile orok fitxatzen duela eta ratio orokorra dela izenpetzean kontratuan ageri zena. Berebat, lanbide kategoria bakoitzaren eginkizunak eta lan planak egiaztatuko dira, baita gauez arreta emateko betebeharrak ere, agiritan aurreikusi zena.

Aurreko urteetan bezala, 2020an kontrolatuko da noraino betetzen diren benetan zentroak edo zerbitzuak eta nola baloratzen den erabiltzaileen

mendekotasuna, egiaztatuko zerbitzua baimenduta dagoela benetan ematen dituen prestazioak emateko eta erabiltzaileek beren egoerara eta beharretara egokitutako arreta jasotzen dutela.

Laguntzak kontrolatzeko lerroari dagokionez, errenta bermatuen ikuskapenak mantentzen dira, eta Diru-sarrerren Bermearen Atalak bidalitako espedienteak ikuskatuko dira, jadanik ebatzita badaude ere, baldin eta zalantza edo zantzuren bat badago baldintzak betetzeari buruz. Kontrol hori egiteko, Foruzaingoaren laguntza eskatu ahal izanen da, aurretik ezarritako prozeduraren arabera.

Horrenbestez, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez eman dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko Ikuskapen Plana onestea, 2020. urterako. Foru agindu honen eranskinean jaso da.

2. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an.–Eskubide Sozialetako kontseilaria, M.^a Carmen Maeztu Villafranca.

ERANSKINA

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Ikuskapen Plana 2020. urterako

Lehen.–Organo arduraduna.

Idazkaritza Tekniko Nagusiko Ikuskapen Atala da Plana betearazteko ardura duen administrazio organoa, urriaren 30eko 268/2019 Foru Dekretuak Eskubide Sozialetako Departamentuarentzat onetsitako egitura organikoaren arabera. Plana indarra duen arau esparruari jarraituz garatuko da.

Bigarrena.–Helburuak.

1. Gizarte zerbitzuen hartzaileek beren beharretarako laguntza egokia eta kalitatekoa jaso dezaten arduratzea, araudi indardunarekin bat.

2. Indarra duen legediak gizarte zerbitzuen hartzaileei onartzen dizkien eskubideak, batez ere egoitzetako erabiltzaileen eskubide berariazkoak, errespetatzen diren begiratzea.

3. Zentroein eta zerbitzuei aholku ematea indarreko legedia betetzearen gainean eta erabiltzaileei kalitateko arreta emateko zenbait alderdiren gainean, zehazki, arlo horretaz Eskubide Sozialetako Departamentuan prestatzen diren agiriei buruzkoak eta bete behar dituzten betebeharrak material eta funtzionalei buruzkoak.

Hirugarrena.–Prozedura.

Eskubide Sozialetako Departamentuak, 2020. urtean, plan honetan jaso diren ikuskapen lanak eginen ditu, eta aurkezten diren salaketa, kexa eta erreklamazioei erantzuteko behar direnak ere bai, baita Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean aurreikusitako baimenei erantzuteko behar direnak ere.

Jarduketa bereziak ere egiten ahalko ditu, Eskubide Sozialetako kontseilariaren edo zuzendaritza nagusien aginduz, goiko agindu baten ondorioz, beste organo batzuek eskaera arrazoitua eginda, baita Ikuskapen Atalaren beraren ekimenez ere.

Laugarrena.–Aplikatzekoa den araudia.

Ikuskapen lanetan gizarte zerbitzuen arloko arau guztiak izanen dira aplikatzeak. Lan horretan, batez ere, honako arau hauei begiratuko zaie:

1) 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

2) Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, aurreko foru legearen xedapen indargabetzaile bakarrean xedatutakoarekin bat.

3) 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, Haurren eta Nerabeen Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzkoa.

4) Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duena.

5) Irailaren 28ko 221/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetako gizarte zerbitzuen esparruan lotura fisiko eta farmakologikoen erabilera arautzen duena, eta hori garatzeko araudia.

6) Ikuskatu beharreko laguntzen arau berariazkoak, eta izenpetutako kontratuen agiri teknikoak eta administratiboak, kasua bada.

7) Maiatzaren 16ko 48/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Gizarte Zerbitzuetako Ikuskatzaileen Araubidea ezartzen duena.

Bosgarrena.—Oinarrizko jarduketa lerroak.

Jarduteko ildo nagusiek helburu hauek lortzea izanen dute xede:

I.—Bermatzea gizarte zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen eskubideak errespetatzen direla, bereziki egoitza arloko gizarte zerbitzuen jasotzaileenak eta batez ere honako hauei dagokienez: arreta integratua, espezifikoa eta beren beharretara egokituia jasotzea, eta erabiltzaileek zerbitzuaren baldintza guztien berri izatea, zerbitzuan sartzeko kontratua sinatzearekin batera. Zehazki, Ikuskapen Atalak 2019ko Ikuskapen Plana gauzatzeari buruz egindako eskaeren eta/edo ohartarazpenen betearazpena berrikusiko da, bai eta zerbitzu horiek izandako salaketak aztertzean egindako eskaeren eta/edo ohartarazpena ere. Halaber, egiaztatuko da indarreko araudia betetzen dela aplikatu beharreko atxikipenetan eta beste erregulazio batzuetan eta kontratuen alderdi zehatzetan, hala nola ba ote dagoen erreferentziako langilerik eta ezarrita ote dauden bizitzaren historiak, pertsona ardatz duen arretaren ereduak, banakako arreta planak, protokoloak eta erregistroak (gorabeheren parteak, eginkizunen liburuak, etab.). Zehazki, nahitaezkoa izanen da dokumentu horiek egotea eta hor bilduta dauden gertaerak ikusi dituzten langileek sinatuta egotea.

Orobat, egiaztatuko da noraino betetzen diren benetan zerbitzuak eta nola baloratzen den haien erabiltzaileen mendekotasuna, egiaztatuko zerbitzua baimenduta dagoela benetan ematen dituen zerbitzuak emateko eta erabiltzaileek beren egoerara eta beharretara egokitutako arreta jasotzen dutela.

II.—Zentroen eta zerbitzuen ikuskapena eta kontrola. Bereziki kontrolatuko dira langileen antolamendu eta banaketa, bai eta haien funtzioak ere, bermatzeko proportzionalak eta egokiak direla asteko egun guztietan eta eguneko nahiz gaueko ordu guztietan, hala erabiltzaileei zerbitzua modu egokian eman ahal izan diezaieten. Apartatu horri behar bezala heltzeko, fitxaketak, lan kontratuak, txanden ordutegiak eta lan planak eska ditzakete ikuskatzaileek. Halaber, banakako elkarrizketak egin ahal izanen zaizkie langileei, beren ordezkariak edo beharrezkotzat jotzen diren beste pertsona edo erakundeei. Orobat, behaketa zuzenaren bidezko egiaztapen jarduerak egin ahal izanen dituzte egindako bisitetan.

III.—Errenta bermatuaren onuraduna izateko baldintzak betetzeari buruzko ikuskapenaren oinarrizko lerroa, Diru-sarreraren Bermearren Atalak kontrolatzeko bidalitako espedienteetan, jadanik emanda badaude ere, baldintzak ez betetzeari buruzko zantzuaren bat dagoenean.

Seigarrena.—Metodologia.

Ikuskapena, legez onartutako eskumenak erabiliz, oinarrizko jarraibide hauei loturik eginen da:

1. Ikuskatzaileak zentro eta zerbitzuetako instalazio eta lokal guztietan sartzen ahalko dira. Orobat, ikuskapenaren xedea betetzeko eta ikuskatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzeko beharrezkoak eta/edo jakingarriak diren agiri, datu eta argibide guztiak eman behar zaizkie.

Bisitaren unean zerbitzuaren arduraduna ez dagoenean, bere eginkizunak zerbitzuko beste langile baten esku utzi beharko ditu alde zuzenetik, eta hark izanen du ikuskatzaileari laguntzearen eta jarraibideei erantzutearen ardura, eta pertsona horrek sarbidea izanen du eskatutako agiri, datu edo informazio guztietara.

Illo horretan, zentro edo zerbitzu bakoitzak zerrenda bat osatu beharko du, zuzendaria ez dagoenean horren hiru arduradun izanen dituen gutxienez, arreta emateko hala ikuskatzaileei nola erabiltzaileei eta haien familiakoei.

Ordezpen zerrenda hori zentroko iragarki-taulan egonen da ikusgai, eta arduradun ordezkoren izen-abizenak eta lanpostuak izanen ditu ageri, baita ordezpen hurrenkera ere.

Ikuskatzaileei ukatzen bazaie instalazioetan sartzea edo agiriak eskuratzea, izan ordezkoa ez izendatzeagatik izan hark ez dakielako non dauden datuak edo ezin dituelako eskuratu, uler daiteke ikuskapen lanari egiten zaion eragozpena dela, eta hori arau-hauste astun gisa dago tipifikaturik Gizarte Zerbitzuei buruzko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 86.n) artikulua arabera.

2. Bisita arruntak eta salaketa baten ondoriozkoak ez dira alde zuzenetik iragarriko. Ikuskatzaile egiaztatuen identifikazioarekin hasiko dira, eta ikuskatzaileek zehaztuko dute zein den bisitaren zergatia.

Ikuskatzaileak bidezkotzat jotzen duenean, zuzenean jo dezake egoki juzgatzen dituen areto edo geletara, ikuskapenaren xedeko gertaerak egiaztatzeko, zerbitzuaren arduraduna agertu eta harekin batera joan beharrik gabe.

3. Ikuskapen bisitak, haien arrazoiak edozein izan ere, lanegunetan nahiz jaiegunetan egiten ahalko dira, egunez edo gauez.

4. Ikuskatzaileek beren lanean datu pertsonalen babesari buruzko arau aplikagarriak bete beharko dituzte.

5. Departamentuko organo eta erakundeak behartuta daude ikuskatzaileei ahalik arinen eta eraginkortasunez laguntzeko, hala eskatzen zaien guztietan.

6. Plana bete aurretik, oinarrizko lerro bakoitzeko ikuskapen protokoloak onetsiko dira.

Zazpigarrena.—Gizarte politikaren arloko ikuskapenaren oinarrizko jarduketa lerroak 2020. urtean.

I.—Oinarrizko jarduketa lerroa, egoitza arloko gizarte zerbitzuen hartzaileren eskubideen errespetua bermatzea xede duena. Zehazki, behatuko da arreta egokitzen den erabiltzaileen beharretara. Orobat, Ikuskapen Atalak 2019ko Ikuskapen Plana gauzatzeari buruz egindako eskaeren eta/edo ohartarazpenen betearazpena berrikusiko du, bai eta zerbitzu horiek izandako salaketak aztertzean egindakoena ere. Berebat, egiaztatuko da noraino betetzen den indarreko araudia aplikatu beharreko atxikipenetan eta beste erregulazio batzuetan eta kontratuetako baldintzetan, hala nola banakako arreta planetan, protokolo eta erregistroetan, aztertzeo ba ote dagoen erreferentziako langilea eta ezarri ote diren bizitzaren historiak eta pertsona ardatz duen arretaren ereduak. Banakako arreta planek erabiltzailearen balorazio integrala izanen dute, eta hartan agertuko dira erabiltzailearen gaitasunak eta dituen lehenetasunak.

Halaber, agiri bat banakako arreta plantzat hartzeko, helburu orokorrak eta zehatzak markatu beharko ditu arloka, baita horiek lortzeko neurriak edo programak ere. Agiri horretan, erabiltzailearen mendekotasuna eta arreta zuzenari lotutako alderdiak bildu beharko dira, hala nola oheratzeko, jaikitzeo, garbitzeo, mugiarazteko eta jateko ordutegiak, eta horien justifikazio teknikoak, ohikotzat jotzen diren etatik desberdinak badira; modu orokorrean ezin izanen dira antolamendu-neurri hutsak hartu erabiltzaileen eta senitartekoen beharrak eta nahiak aintzat hartu gabe.

Banakako arreta plana dokumentu diziplinartekoa eta integrala izanen da, eta aldiari behin berrikusi beharko da, gutxienez ere urtean behin eta erabiltzailearen egoeran aldaketa garrantzitsuak gertatzen diren aldiro. Orobat, agiri horren berri emanen zaio erabiltzaileari eta/edo familiari, eta harekin adostu beharko da (ahal den neurrian).

Bestalde, ulertuko da bizitzaren historiak ez direla tramite dokumental huts bat edo erabiltzailearen balorazio tekniko sozial bat, banakako arreta planaren parte dena; aitzitik, ulertu behar da narrazio bat dela, erabiltzaileak edo haren hurbilekoek egiten dutena bizitzaz, balioez, gustuen heziketaz, kidetasunez eta bizitzako helburuez eta plangintzez, bizitzaren irudi bat eratzen eta jokabidea ulertarazten laguntzen duena. Bizitzaren historiak agiri dinamikoak izan behar du, bizirik dagoena, erabiltzaileak erabiltzen duen zerbitzuan bizi izandako egoerak eta esperientziak biltzen dituena. Pertsona horri arreta ematen dioten langileek ezagutu eta eskura izan behar dute agiri hori.

Egiaztatuko da mailaz maila ezarri ote diren pertsona, ez erakundea, ardatz duen arretaren ereduak eta horretarako neurri zehatzak hartu ote diren, hala nola ea aukerarik dagoen arratsaldeetan dutxak hartzeko eta garbiketa egiteko, ea zabalak diren gosari, bazkari eta afarien ordutegiak, ea posible den menua aukeratzea, ea boluntariotza bultzatzen den laguntza egiteko eta aisialdirako, ea bizikidetzarako unitaterik sartu den zentroetan, ea batentzako logela gehiago dagoen, ea egoiliarrek bereizteko elementurik paratu den birentzako logeletan beren intimitateari eusteko edo irakurtzeko argirik paratu den, egoiliar batek gauez irakurtzeko modua izan dezan gelako kideari trabarik egin gabe, eta abar.

Bukatzeko, funtsezko bihurtu da, pertsona ardatz duen arretan, erreferentziako langilearen figura, aurreko urteetan kontrolatzen bazen ere. Erabiltzaileak hautatu behar du figura hori, bere beharren arabera eta harekin duen kidetasuna oinarri hartuta. Askotarikoak izanen dira erreferentziako langileak, eta lehenetasunez, arreta zuzeneko langileak. Erreferentziako langile bakoitzak pertsona bakan batzuk izanen ditu bere kargura.

Helburua.—Ikuskapen lanaren bidez egiaztatuko da gizarte zerbitzuen hartzaileren eskubideak errespetatzen diren, hau da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 6. eta 8. artikuluetan arautzen direnak, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen ildoari jarraituz (Autonomia Pertsonalaren Sustapenari eta Mendekotasuna duten Pertsonentzako Laguntzari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea).

Ikuskapen Plan honen indarraldian, bereziki, egiaztatuko da ea egoitzeko zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak errespetatzen diren, honako hauei dagokienez: adinekoentzako arreta, desgaitasunak dituzten pertsonak, eritasun mentalak, adingabekoentzako arreta eta gizarte bazterketa.

Eskubideak errespetatzen diren jakiteko, zerbitzu horiei egiten zaizkien bisitetan, bisitaren arrazoiak edozein dela ere, erabiltzaileen eskubide hauek aztertuko dira nagusiki:

1. Zentroko langileengandik eta erabiltzaileengandik tratatu duina jasotzeko eskubidea, arreta jarritz, bereziki, narriadura kognitiboa edo dementsia dutenen tolerantzian eta ulermenean.

Era berean, erreferentziako langileek duten garrantzia azpimarratuko da, baita erabiltzaileen zainketa pertsonalei ematen zaien arreta egokia izatea ere, haien inguruabarren eta egoeraren arabera.

2. Beren eskubideei buruzko informazioa eta beren egoeraren balorazioa jasotzeko eskubidea, eta eraginaren dien edozein esku-hartzeren aurretik informazioa jasotzekoa, berariazko baimena eman ahal izateko. Ildo horretan, bereziki, kontrolatuko da ea erabiltzaileek eta/edo haien senitatekoek ezagutzen dituzten eta jaso dituzten, zerbitzua hartzen hasi baino lehen, zerbitzuaren barne araubidearen erregelamendua eta zerbitzuarekin sinatu duten kontratuaren zehaztapenak, eta bi agiri horiek errespetatzen dituzten erabiltzaileen autonomiarako eskubidea eta askatasuna.

3. Banakako arreta jasotzeko eskubidea, erabiltzaileen berariazko beharren araberakoa, baita haien mendekotasun mailaren araberakoa ere. Zehazki, ikuskatuko da ea zerbitzuek banakako arreta planik ote duten erabiltzaile bakoitzeko, eta ea profesional eskudunek aldiari-aldiari aztertu duten. Halaber, kontrolatuko da ea arreta pertsonala, soziala, sanitarioa, farmazeutikoa, hezkuntzako eta kulturala eraginkorra, egokia eta bana-banakoa den, erabiltzaileen borondatea eta lehenetasunak errespetatuz. Orobat, egiaztatuko da zentroek bete dituztela atal horietan 2019. urtean jaso dituzten eskaerak eta/edo ohartarazpenak.

4. Intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea. Nabarmenduko da ea zerbitzuak ba ote dituen bisitak ahalik eta intimitate handienarekin jasotzeko egokiak diren instalazio eta eremuak, eta ea pribatutasuna errespetatzen den erabiltzaileak kanpoko edonorekin izaten duen komunikazioan, dela posta arruntez dela telefonoz edo dela beste edozein baliabidez.

5. Kexen eta iradokizunen sistema erabiltzeko eskubidea. Atal honetan, zerbitzuek esparru horretan erabiltzen dituzten protokoloak aztertuko dira, baita zerbitzuak emandako eta eskatzaileak jasotako erantzunik baden eta horretarako zer epe behar izan den ere.

6. Zentroetan parte hartzeko eskubidea, partaidetza kontseiluen bitartez, horien eraketa eta urteko bilkura araudi aplikagarriak ezartzen baditu.

7. Baimen informaturik gabe edo sendagileek agindu eta gainbegiratu ezean, inolako immobilizazio edo murrizketa fisikorik edo tratamendu farmakologikorik ez izateko eskubidea, salbu eta erabiltzailearen nahiz hirugarrenen segurtasun fisikorako berehalako arriskua badago. Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetako gizarte zerbitzuen esparruko lotura fisikoen eta farmakologikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 221/2011 Foru Dekretuari eta apirilaren 2ko 186/2014 Foru Aginduaren bidez onetsitako erabilera protokoloari jarraikiz. Zehazki, loturen batzorderik baden eta nola funtzionatzen duen egiaztatuko da, baita loturen aldean izan daitezkeen aukerak proposatu eta horiek jartzea eta ebaluatzea ere. Egiaztatuko da ea bete diren Ikuskapen Atalak arlo horretan, 2019. urtean, zentroei bidalitako ohartarazpenak edo errekerimenduak, 2019ko Ikuskapen Plana gauzatzearen ondoriozkoak edo gai horren gaineko salaketa ebaztien ondoriozkoak.

Zerbitzuen hartzaileen eskubideak errespetatzen diren jakiteko, ikuskapen bisita arruntetan, bide hauetako edozein erabili ahal izanen da:

–Zentroko erabiltzaileek eta/edo horien senideek eta adiskideek ikuskatzaileari ematen dioten informazioa.

–Ikuskapen lanean nabarmentzen diren gorabeherak.

–Zentroko langileek, langile ohiek eta arduradunek ematen duten informazioa.

Eskubideak egiaztatzeko bidea zuzeneko behaketa denean, ikuskatzaile guzientzat alde aurretik finkatutako irizpide homogeen hartuko dira kontuan. Irizpide horiek Ikuskapen Protokoloetan finkatuko dira.

II.–Oinarrizko jarduketa lerroa, zentroak eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzea xede duena, bereziki azpimarratuta erakundearen kontrola eta langileen banaketarena eta eginkizunena, begiratzeko proportzionala eta egokia dela asteko egun guztietan eta eguneko nahiz gaueko ordu guztietan, hala erabiltzaileei zerbitzua modu egokian eman ahal izan diezaieten haien beharren eta egoeraren arabera. Bereziki, esparru-akordioa izenpetu duten zentroetan, egiaztatuko da arreta zuzeneko langileak erabiltzaileei arreta ematen ari diren direla soil-soilik eta ez dituztela hartzen garbiketako langileen, arropa garbitzaileen, sukaldekoen edo mantentze-lanetako berezko eginkizunak. Kontratadunek zaintzaile kategoria ez den bat daukatenean, lan kontratuan zehatu beharko da lanaldiaren zer portzentajetan arituko diren arreta zuzena ematen, eta egiaztatzen ahalko da hori benetan betetzen den. Halaber, egiaztatuko da zentroko ratio orokorrari eusten zaiola une oro kontratuak irauten duen bitartean.

Era berean, egiaztatuko da zentroek dokumentazio administratibo guztia dutela, hala indarreko araudiak nola izenpetutako kontratuetako agiriak eskatzen dutena. Zehazki, batez ere egiaztatuko da erantzukizun zibileko aseguru polizarik dagoen eta horrek betetzen dituen sinatutako esparru-akordioan ezarritako baldintzak. Berebat, horretara beharturik dauden zentroei eskatuko zaie langileentzako berdintasun plan bat izan dezatela eta berdintasunaren arloko ikastaroak prestatu eta egin ditzatela enplegatuen prestakuntzaren urteko planaren barnean.

II.1 programa.—Lanean ari diren zentro eta zerbitzu guztiak legeztatzea.

Helburua.—Behar diren baimenak izan gabe lanean ari diren zentro eta zerbitzu guztien egoera administratiboa erregularizatzea.

II.2 programa.—Baimen berriak ematea eta Gizarte Zerbitzuen eta Baimen Berariazkoen Erregistroan inskripzio berriak egitea.

Helburua.—Behar diren ikuskapen lanak egitea baimenak emateko prozeduretan (funtzionamendu baimenak, titulartasuna aldatzekoak, instalazioetako aldaketa garrantzitsuak, eginkizunak eta helburuak aldatzekoak, behin-behineko baimenak salbuespen kasuetarako, eta jarduera uztekoak), eta Gizarte Zerbitzuen eta Baimen Berariazkoen Erregistroan egin, kendu edo aldatzen diren inskripzioak.

II.3 programa.—Zentro eta zerbitzuek baliabideei eta eginkizunei buruzko baldintzak nola betetzen dituzten une oro kontrolatzea.

Helburuak:

Urtean behin bisita bat egitea honako arlo hauetako egoitzetara eta eguneko zentroetara: adineko pertsonentzako arreta, mendekotasuna, desgaitasunak, eritasun mentalak, gizarte bazterketa eta adingabeen arreta. Egiaztatuko da ea honako alderdi hauek legearen arabera betetzen dituzten:

a) Aplikagarria den araudia betetzea: funtzionamendua, segurtasuna, administrazioa, erabiltzaileen eskubideak, loturak.

b) Giza baliabideak eta langileriaren antolaketa. Langileen antolamendua eta banaketa, eta haien funtzioak kontrolatuko dira bereziki, bermatzeko proportzionalak eta egokiak direla asteko egun guztietan eta eguneko nahiz arratseko ordutegietan, hala erabiltzaileei zerbitzua modu egokian eman ahal izan diezaieten beren beharren eta egoeraren arabera. Batik bat, egiaztatuko da esparru-akordioa klausula teknikoan agirian jasotzen dena egoitzetako plazak, eguneko egonaldiak eta autonomia sustatzeko zerbitzuak kudeatzeko, baita adinekoentzako eguneko zentroaren zerbitzuen esparru-akordioan jasotakoa ere, bai zentroak ematen dituela aitortzen dituen zerbitzuei dagokienez, bai zentroak deklaraturiko eta sinatutako ratio orokorre dagokienez. Horregatik, kontrolatuko da noraino betetzen diren benetan zerbitzuak eta nola baloratzen den haien erabiltzaile guztien mendekotasuna, egiaztatzeko zerbitzua baimenduta dagoela benetan ematen dituen zerbitzuak emateko eta erabiltzaileek beren egoera eta beharretara egokitutako arreta jasotzen dutela. Apartatu hori behar bezala aztertzeke, ikuskatzaileek fitxaketak eska ditzakete, nahitaez bete behar baitira, lan arloko araudian nahiz aipaturiko esparru-akordioan agiri administratiboetan ezarri bezala. Bestalde, lan kontratuak, txandean ordutegiak eta lan planak ere eska ditzakete. Halaber, banakako elkarrizketak egin ahal izanen zaizkie langileei, beren ordezkariei edo beharrezkotzat jotzen diren beste pertsona edo erakundeei. Orobat, behaketa zuzenaren bidezko egiaztapen jarduerak egin ahal izanen dituzte egindako bisitetan.

Egiaztatuko da ea bete diren Ikuskapen Atalak arlo horretan, 2019. urtean, zentroei bidalitako ohartarazpenak eta errekerimenduak, 2019ko Ikuskapen Plana gauzatzearen ondoriozkoak edo gai horren gaineko salaketa ebaztien ondoriozkoak.

III.—Oinarrizko ikuskapen lerroa, errenta bermatuaren onuraduna izateko baldintzak betetzen diren kontrolatzeko, bereziki azpimarratuta bizikidetzak, bizilekuak eta diru-sarreraren jasotzea.

Onartutako espedienteak berrikusiko dira bereziki, baldin eta Diru-sarrearen Bermearren Atalak aditzera ematen bada badirela zantzuak edo zantzuak pentsarazten dutenak aipaturiko baldintzak betetzen ez direla.

Hori gauzatzeke, Foruzaingoaren laguntza eskatu ahal izanen da, aurretik Foruzaingoarekin prestatutako eta adostutako prozedurari jarraikiz.

F2000594

3E/2020 FORU AGINDUA, urtarrilaren 14koa, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak emana, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura aldatzen duena bulegoen mailan.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak urtarrilaren 28an eman 5/2016 Foru Aginduaren bidez, orduko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoarena ezarri ziren bulegoen mailan.

Urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuaren bidez, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zen, atalen mailara arte.

Horrenbestez, bidezkoa da bulegoen lehengo egitura egokitzea Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organiko berrira.

Ondorio horietarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak 34.4 artikuluan ezartzen du ezen, bulegoak eta ataletatik beharako unitateak sortu, aldatu eta kentzeko, unitate horiek zein departamentutan sartuko diren, hango titularraren foru agindua beharko dela.

Horrenbestez, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Ekonomia Aferetarako Bulegoa eta Nafar Biltokien eta Erkidegoen Etxeen Bulegoa kentzea Herritarrekiko Harremanetako Departamentutik.

2. Foru agindu hau igortzea Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari eta Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiari, eta Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari.

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 14an.—Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria, Ana Ollo Hualde.

F2000595

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

7/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: ureztatzaileen elkarteak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak. DDBN: 493620.

2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27koan, argitaratutako deialdian hilabeteko epea ezartzen da eskaerak aurkezteko, Foru Agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori dela eta, oinarri arautzaileetan ezarritako eskaerak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 27an amaitzen da.

IV. eranskineko "Erreferentziako gehieneko prezioak" izeneko taulan azalpen-ohar bat agertzen da eta, atzeman denez, bertan ez da jasotzen gastu orokorrak eta industria mozkina aipatu prezioei aplikatzeko aukera. Horrenbestez, aipatu kontzeptu diruz lagungarriak sartu behar dira.

Azaldutakoarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren I. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: ureztatzaileen elkarteak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak.

1. Azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 6.1 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezteko eta eskatutako betekizunak frogatzeko epeari buruzkoa, honela geldituko da:

"1. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 20an bukatuko da.

Laguntzen eskaera 2020ko urtarrilaren 27a baino lehen aurkeztu duten ureztatzaileen elkarteek beste eskaera bat aurkezten ahalko dute, hura aldatzeko edo zuzentzeko, aurreko paragrafoan ezarritako data arte".

2. Azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 7.7 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak erabili direla frogatzeko epeari eta moduari buruzkoa, honela geldituko da:

"7. Diruz lagundutako jarduketak 2020ko abuztuaren 26rako bukatu beharko dira. 2020ko abuztuaren 26a baino lehenago aurkeztu beharko dira ordainketa eskaera, obra adjudikatzearen ziurtagiria, obraren ziurtagiriak, fakturak eta ordainagiriak".

2. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 26ko 142/2019 Foru Aginduaren IV. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: ureztatzaileen elkarteak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak.

IV. eranskina —erreferentziako gehieneko prezioei buruzkoa— aldatzen da, aipatu IV. eranskinaren bukaeran jasotzen den oharra zuzenduz. Honela geldituko da ohar hori:

"Oharra: prezioak erabat amaiturik dauden obra unitateei buruzkoak dira, eta horiek gauzatzeko behar diren material guztiak, laneskua eta

makinak hartzen dituzte barnean. Prezio horiek aplikatzearen emaitzari gehitzen ahalko zaizkio industria mozkina (obra gauzatzeko prezioaren gaineko %6 gehienez) eta gastu orokorrak (%9 gehienez).

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Foru agindu hau Nafarroako Gobernuaren Dirulaguntzen Datu Basean (NGDDB) erregistratzea.

5. Foru agindu honen kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, Administrazio Publikoan Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Itziar Gómez López.

F2001274

8/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: toki entitateen titulartasunekoak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak. DDBN: 493658.

2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27koan, argitaratutako deialdian hilabeteko epea ezartzen da eskaerak aurkezteko, Foru Agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori dela eta, oinarri arautzaileetan ezarritako eskaerak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 27an amaitzen da.

III. eranskineko "Erreferentziako gehieneko prezioak" izeneko taulan azalpen-ohar bat agertzen da eta, atzeman denez, bertan ez da jasotzen gastu orokorrak eta industria mozkina aipatu prezioei aplikatzeko aukera. Horrenbestez, aipatu kontzeptu diruz lagungarriak sartu behar dira.

Azaldutakoarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren I. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: toki entitateen titulartasunekoak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak.

1. Abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 5.1 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezteko eta eskatutako betekizunak frogatzeko epeari buruzkoa, honela geldituko da:

"1. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 20an bukatuko da.

Laguntzen eskaera 2020ko urtarrilaren 27a baino lehen aurkeztu duten toki entitateek beste eskaera bat aurkezten ahalko dute, hura aldatzeko edo zuzentzeko, aurreko paragrafoan ezarritako data arte".

2. Abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 9.2 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak erabili direla frogatzeko epeari eta moduari buruzkoa, honela geldituko da:

"2. Diruz lagundutako jarduketak 2020ko abuztuaren 26rako bukatu beharko dira. 2020ko abuztuaren 26a baino lehenago aurkeztu beharko dira ordainketa eskaera, obra adjudikatzearen ziurtagiria, obraren ziurtagiriak, fakturak eta ordainagiriak".

2. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 162/2019 Foru Aginduaren III. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako aparteko laguntza hauen oinarri arautzaileak: toki entitateen titulartasunekoak diren eta 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren nekazaritzako azpiegiturak konpontzeko gastuak diruz laguntzekoak.

III. eranskina —erreferentziako gehieneko prezioei buruzkoa— aldatzen da, aipatu III. eranskinaren bukaeran jasotzen den oharra zuzenduz. Honela geldituko da ohar hori:

"Oharra: prezioak erabat amaiturik dauden obra unitateei buruzkoak dira, eta horiek gauzatzeko behar diren material guztiak, laneskua eta makinak hartzen dituzte barnean. Harri lubeta eta ubideak berriz jarriz gero, modulutatutako makina-orduen, materialaren eta langileen araberako moduluak erabiliko dira. Prezio horiek aplikatzearen emaitzari gehitzen ahalko zaio jasandako BEZa (berreskuratutako ezin bada BEZari buruzko foru

legeriari jarraikiz), baita industria mozkina (obra gauzatzeko prezioaren gaineko %6 gehienez) eta gastu orokorrak (%9 gehienez) ere”.

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Foru agindu hau Nafarroako Gobernuaren Dirulaguntzen Datu Basean (NGDDB) erregistratzea.

5. Foru agindu honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an.–Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Itziar Gómez López.

F2001276

9/2020 FORU AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren aldaketa onesten duena. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako laguntza hauen oinarri arautzaileak: 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan kaltetutako elementuak konpontzeko laguntzak. DDBN: 493673.

2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 27koan, argitaratutako deialdian hilabeteko epea ezartzen da eskaerak aurkezteko, Foru Agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori dela eta, oinarri arautzaileetan ezarritako eskaerak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 27an amaitzen da.

IV. eranskineko “Erreferentziako gehieneko prezioak” izeneko taulan azalpen-ohar bat agertzen da, atzeman denez, bertan ez da jasotzen gastu orokorrak eta industria mozkina aipatu prezioei aplikatzeko aukera. Horrenbestez, aipatu kontzeptu diruz lagungarriak sartu behar dira.

Azaldutakoarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren I. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako laguntza hauen oinarri arautzaileak: 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan kaltetutako elementuak konpontzeko laguntzak.

1. Abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 6.1 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezteko eta eskatutako betekizunak frogatzeko epeari buruzkoa, honela geldituko da:

“1. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 20an bukatuko da.

Laguntzen eskaera 2020ko urtarrilaren 27a baino lehen aurkeztu duten interesdunek beste eskaera bat aurkezten ahalko dute, hura aldatzeko edo zuzentzeko, aurreko paragrafoan ezarritako data arte”.

2. Abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren I. eranskineko 7.7 oinarria aldatzen da. Aipatu oinarria, dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak erabili direla frogatzeko epeari eta moduari buruzkoa, honela geldituko da:

“7. Diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko eta onuradunek horiek justifikatzeko eta aurkezteko epea 2020ko apirilaren 30ean amaituko da”.

2. Aldatzea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren abenduaren 10eko 164/2019 Foru Aginduaren IV. eranskina. Foru agindu horren bidez onetsi ziren honako laguntza hauen oinarri arautzaileak: 2019ko uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean izandako ohiz kanpoko euri-jasen eta uholdeen ondorioz nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan kaltetutako elementuak konpontzeko laguntzak.

IV. eranskina –erreferentziako gehieneko prezioei buruzkoa– aldatzen da, aipatu IV. eranskinean bukaeran jasotzen den oharra zuzenduz. Honela geldituko da ohar hori:

“Oharra: prezioak erabat amaiturik dauden obra unitateei buruzkoak dira, eta horiek gauzatzeko behar diren material guztiak, laneskua eta makinak hartzen dituzte barnean. Prezio horiek aplikatzearen emaitzari gehitzen ahalko zaio jasandako BEZa (berreskuratzen ezin bada BEZari buruzko foru legeriari jarraikiz), baita industria mozkina (%6 gehienez) eta gastu orokorrak (%9 gehienez) ere.

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Foru agindu hau Nafarroako Gobernuaren Dirulaguntzen Datu Basean (NGDDB) erregistratzea.

5. Foru agindu honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, Administrazio

Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an.–Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Itziar Gómez López.

F2001271

486/2019 EBAZPENA, abenduaren 31koa, Landa Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez oinarri arautzaileak onesten baitira azukre-erremolatxaren laboreentzako “de minimis” araubideko laguntzak emateko, eta 2020ko laguntza deialdia ere onesten baita. DDBN identifikazioa: 492522.

Espainiako azukre-erremolatxaren sektoreak oihartzun ekonomiko, sozial eta ingurumen-oihartzun handia sorrarazten du jarduera hori aurrera eramaten den esparru geografikoetan; izan ere, balioa eranstean du katearen katebegi guztietan, eta landa eremuaren garapena sustatzen. Erremolatxaren laborantzak landa eremua suspertzearen alde egiten du, herriarrak bertan bizi daitezen laboratzen du eta udal eta eskualdeen jarduera ekonomikoa dinamizatzen du.

Erremolatxaren laborantza ohikoa izan zen Nafarroan 80ko hamarkada arte. Orduan, Merkatu Antolakunde Erkidean (MAE) gertatu ziren aldaketek desagerrarazi egin zuten. Duela 7 urte, Nafarroako Ubidea eraiki zenez, 25 ha erein ziren, berriz ere, Artaxoa herriaren inguruan. Orduz gero erremolatxaren laborantzak gora egin du, eta 2018an 700 ha erein dira.

Labore hau oso ongi egokitzen zaio Nafarroako Ubidearen laborantza ureztatuen 20.000 ha berrien labore txandaketari. Lortzen diren errendimenduak 90 eta 115 tonaren artean daude, hektarea bakoitzeko, eta urtez urte baieztatuta da produkzioa egonkorra dela.

Sektoreak lan egiten du nekazaritza-praktika onenak erabiltzeko, eta horretarako laboreen kulturak inguru hartako ezaugarriak egokitzen ari zaizkie. Modu horretan, poliki-poliki lortzen ari da laborantziaren kostuen optimizazio hobea, nekazaritza-inputak era arrazionalen erabiliz. Izan ere, azken bi kanpainen batez besteko errendimenduak hektarea bakoitzeko 100 tona baino handiagoak izan dira, eta joan den kanpainan nekazarien %85en batez besteko produkzioa 17%ko polarizazioko 109 t/ha izan da.

2017ko irailean Europako produktio kuotak desagertu zirenetik, azukre tonaren prezioa %29 jaitsi da, eta 2018an behea jo du. Azukre industriak EBk ordaintzen duen azukrearen prezioa erabiltzen du, ekoizleei ordaintzen dien erremolatxaren prezioa kalkulatzeko. Azukrearen prezioaren jaitsiera honek krisi handi bat sortu du; krisi honek, jada 2019-2020 kanpainan, nekazarien eta azukre sektoreko enpresen arteko lankidetzaren ereduari erasan dio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduak Nekazaritza Politika Erkidearen esparruko laguntza araubideen arabera nekazariari egiten zaizkien zuzeneko ordainketetan aplikatzeko arauak ezarri zituen, eta Kontseiluaren 637/2008 (EE) eta 73/2009 (EE) Erregelamenduak indargabetu. Aipatu erregelamendu horren 52.2 artikulua aplikatuz, NPEren 2015-2020ko erreforman Espainian ezarri zen erremolatxaren sektoreari atxikitako laguntza bat, abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren bidez (errege dekretu hori nekazaritzari eta abeltzaintzari 2015etik aurrera egiten zaizkien ordainketa zuzenen eta laguntzeko beste araubide batzuen aplikazioari buruzkoa da, baita ordainketa zuzenen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzkoa ere).

Atxikitako laguntza honen helburua da azukre-erremolatxaren laborantzaren jarraipenari laguntzea, produzitu ohi den eskualdeetan, baita hari lotutako industria eraldatzaileari lehengai-hornidura egokia ematea erraztea, azukre-erremolatxaren nekazaritzako industriaren sektorearen iraupena ziurtatzeko.

2015. urtean ezarri zen laguntza hau, eta ordutik, laguntzaren batezbesteko zenbatekoa, unitateko, 530 euro/ha izan da udaberrian eraitzen diren eskualdeetan.

Hala ere, kontuan harturik batez besteko produkzio-kostuak 3.000 euro hektareako direla, gutxi gorabehera, beharrezkoa ikusi da aldi baterako laguntza ez ohiko bat ezartzea, sektoreak ez dezan alde batera utzi Nafarroako eskualde askotan alternatiba egokia izan daitekeen laborantza bat, eta azukrearen sektoreko lanpostuak ez daitezkeen ukituak izan. Laguntza horren bidez, azukrearen prezioaren jaitsierak nekazarien emaitzen kontuan sortuko duen eragin negatiboa arindu nahi da, jaitsiera horrek, bere aldetik, azukre industriak erremolatxa erosteko ordainduko duen prezioan ere eragiten baitu.

Neurri hau Batzordeak 2013ko abenduaren 18an emandako 1408/2013 (EB) Erregelamenduak ezartzen duenaren abaroen planteatzen da (erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza sektorearentzako “de minimis” laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Batzordeak 2019ko otsailaren 21ean emandako 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatu zuten). Erregelamendu horretan ezartzen da estatu kide batek enpresa bakar bati araubide honetan

ematen dizkion laguntzak ez direla izanen 20.000 euro baino handiagoak hiru zerga ekitaldi hartzen dituen edozein alditan.

Aipatu laguntzaren tramitazioa eta kudeaketa ahalik eta errazen egin ahal izateko, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak nekazaritza eta abeltzaintzarako finantzaturiko ordainketa zuzenei eta Landa Garapenerako Programaren eta Estatuaren halako laguntza batzuei dagokien laguntza eskaera bakarra atzemateko inplementatu den sistemaren bidez egingo da.

Eskatuko diren baldintzak abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuan azukre-erremolatxarako eskatzen diren berberak dira. Dekretu hori nekazaritza eta abeltzaintzari 2015etik aurrera egiten zaizkien ordainketa zuzenak eta laguntzeko beste araubide batzuk aplikatzeari buruzkoa da, baita ordainketa zuzenen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketa eta kontrolari buruzkoa ere.

Azukrearen batez besteko prezioak baldintzatzen du laguntzaren unitatearen zenbatekoa. Europar Batasunak tresna indartsu bat dauka sektoreari buruzko informazioa lortzeko: Azukrearen Europako Behatokia. Organismo horrek hilerro argitaratzen du azukrearen prezioa; prezio horrek urrutze handiak izan ditu, eta gaur egun Europako Batasunean erreferentzia-prezioa 404 euro/tonakoa da.

Zenbateko hau erremolatxa produzitzen duten hektarea guztietara berdin iritsi behar da. Beraz, laguntza osoaren zenbatekoa handiagoa bada aurrekontuan ezarri den zenbatekoa baino, honela jokatuko da: ez da lehentasunezko zerrenda bat egingo, eta hektarea bakoitzeko zenbatekoa gutxiagotuko da deklaratu diren hektarea guztietarako.

Adierazitakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa onesten duen urriaren 23ko 258/2019 Foru Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Azukre-erremolatxaren laborantzarako ematen diren laguntzen oinarri arautzaileak onestea, ebazpen honen I. eranskinean jasoak. Laguntzak "de minimis" araubidearen arabera dira.

2. 2020an azukre-erremolatxaren laborantzarako laguntzak emateko deialdia onestea.

3. Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpenerako eredia onestea. Eredua helbide honetan eskuratzen ahal da:

http://www.navarra.es/appsext/DescargarFichero/default.aspx?CodigoCompleto=Portal@@@pub/BON/IMPRESOSG/001_Transparencia_E.pdf.

4. 200.000 euroko gastua baimentzea, partida honen kargura: "De minimis laguntzak azukre-erremolatxarako" izeneko 710000 71210 4700 412103 partida, edo Nafarroako Gastuen 2021eko Aurrekontu Orokorretan baliokidea izanen dena.

5. Deialdi hau eta bere oinarri arautzaileak Nafarroako Gobernuaren Dirulaguntzen Datu Basean erregistratzea (DDBN: 492522).

6. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7. Deialdi honen eta oinarri arautzaile hauen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2019ko abenduaren 31n.—Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusia, Ignacio Gil Jordán.

I. ERANSKINA

Azukre-erremolatxaren laboreentzako "de minimis" araubideko laguntzen oinarri arautzaileak 2020. urterako

1. oinarria. Xedea.

Ebazpen honen helburua da azukre-erremolatxaren laborantzarako laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea, Nafarroako Foru Komunitatean produzitu ohi den eskualdeetan, baita hari lotutako industria eraldatzaileari lehengai-hornidura egokia ematea erraztea, azukre-erremolatxaren nekazaritzako industriaren sektorearen iraupena ziurtatzeko.

2. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 500 eurokoa izango da hektareako, eta eskaera bakarraren hurrengo urteko urtarilean Europar Batasuneko Azukrearen Merkatuaren Behatokiak argitaratutako azukrearen Europako batez besteko prezioa (AZP, aurrerakoan) erreferentziatutako hartuta kalkulatu da. Laguntzaren zenbatekoa euro/ha-tan adieraziko da, ondorengo taulan adierazten denaren arabera:

AZP (euro/tm)	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA (euro/hektareako)
410 baino gutxiago	500
410 - 419,99	466
420 - 429,99	433
430 - 439,99	400
440 - 449,99	366
450 - 459,99	333
460 - 469,99	300
470 - 479,99	266
480 - 489,99	233
490 - 499,99	200
500 - 509,99	167
510 - 519,99	133
520 - 529,99	100
530 - 539,99	67
540 - 549,99	33
550 edo gehiago	0

2. Dirulaguntzen deialdi hau "de minimis" araubidearen menpean dago (Batzordeak 2013ko abenduaren 18an emandako 1408/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritzan "de minimis" laguntzei aplikatzeari buruzkoa, Batzordeak 2019ko otsailaren 21ean emandako 2019/316 (EB) Erregelamendua aldatuta.

3. Edozein onuraduni gehienez ere 20.000 euroko laguntza ematen ahal zaio hiru zergaldiko edozein alditan, Batzordeak 2013ko abenduaren 18an emandako 1408/2013 (EB) Erregelamendua 3. artikuluko 2. atalean xedatutakoaren arabera; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritzan "de minimis" laguntzei aplikatzeari buruzkoa da erregelamendu hori, eta Batzordeak 2019ko otsailaren 21ean emandako 2019/316 (EB) Erregelamendua aldatu zuen.

3. oinarria. Onuradunak eta betebeharrak.

1. Azukre-erremolatxa produzitzen duten nekazariak izaten ahal dira laguntza honen onuradunak, abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 46. artikulua ezartzen duenaren arabera (dekretu hori nekazaritza eta abeltzaintzari 2015etik aurrera egiten zaizkien ordainketa zuzenak eta laguntzeko beste araubide batzuk aplikatzeari buruzkoa da, baita ordainketa zuzenen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketa eta kontrolari buruzkoa ere). Onuradunak izateko, urtero eskatu behar dute, eskaera bakarrean, baldintza hauek beteta:

a) Azukre-erremolatxa produzitzea, Europako Batasunaren nekazaritza-landareen espezieen barietatei buruzko katalogoko barietateren batekoa, Merkataritza-barietateen erregistrokoa, edo merkataritza-baimen bat emanda daukana, Batzordearen 2004ko abenduaren 1eko 2004/842/EE Erabakiaren arabera.

b) Gutxienez unitate bateko dosia erabiltzea hektarea bakoitzeko, urrez lurretako udaberriko eta udazkeneko ereintzaren produkzio-aldeetan, eta 0,9 unitate hektarea bakoitzeko, lehorreko lurretako udazkeneko ereintzaren produkzio-aldeetan.

c) Hornidura-kontratu bat edukitzea azukre-industriarekin, produzitako erremolatxa eman eta azukre bihurtzeko.

2. Onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

4. oinarria. Eskabideen aurkezpena eta epea.

1. Abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 45. artikulua biltzen duen laguntza atxikia zer lursailentzako eskatu den, laguntza-eskaera lursail horien gainean dela ulertuko da (Errege Dekretu horrek erregulatzen ditu nekazaritza eta abeltzaintzari 2015etik aurrera egiten zaizkien zuzeneko ordainketak eta laguntzeko beste araubide batzuk, baita zuzeneko ordainketen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketa eta kontrola ere).

2. Laguntza eskatuko da Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak nekazaritzarako eta abeltzaintzarako finantzaturiko ordainketa zuzenei eta Landa Garapenerako Programaren eta Estatuaren halako laguntza batzuei dagokien eskaera bakarraren bidez. Eskaera horiek telematika bidez aurkeztuko dira, horretarako Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuarekin dagokien lankidetzaren hitzarmena izenpetu duten entitate laguntzaileen bidez. Eskatzaileak berak ere zuzenean aurkeztu ahal ditu, bere ziurtagiri digitala erabiliz, Nafarroako Gobernuaren web-

orrian eskuragarri dagoen "Laguntzak Kudeatzeko Sistema" (LKS-SGA) aplikazioaren bidez.

3. Abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 95. artikuluan ezarritakoa izanen da aurkezteko epea. Errege dekretu horrek ezarri zuen nekazaritza eta abeltzaintzari 2015etik aurrera egiten zaizkien ordainketa zuzenen aplikazioa, baita ordainketa zuzenen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketa eta kontrola ere.

5. oinarria. *Dirulaguntza emateko modua, lehentasunak eta irizpide objektiboak.*

1. Deialdi honen xede diren dirulaguntzak norgehiagokako prozeduraren bidez emanen dira.

2. Eskaerak aurrekontuan ezarritako aurrekontu-muga gainditzen badute, 2.1) oinarrian aipatzen den unitatearen zenbatekoa doituko da, laguntzaren zenbateko osoak ez dezan gaindi muga hori.

6. oinarria. *Ebaluazio organoa.*

Nekazaritza Zerbitzuak ebaluatuko ditu eskaerak.

7. oinarria. *Deialdiaren antolamendua, instrukzioa eta ebazpena.*

1. Eskaera jasota, Nekazaritza Zerbitzuak eskatzaileak 1., 3. eta 4. oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatuko du.

Eskatzen diren agiriak aurkezten ez baditu, gehienez ere 10 eguneko epean zuzendu dezala eskatuko zaio interesdunari, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela. Hala bada, espedientea artxibatzeke ebazpena eman, eta jakinaraziko zaio.

Halaber, eskatzen diren beharkizunak betetzen ote diren egiaztatuko du Nekazaritza Zerbitzuak, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan dauden agiri, erregistro eta datu base ofizialen egiaztapen administratiboaren bidez.

2. Eskaerak ebaluatu eta gero, Nekazaritza Zerbitzuak laguntza emateko ebazpenaren proposamena egingo du. Horrekin batera, onuradunak dirulaguntza kobratzeko eskubidea dakarten betebeharrak bete dituztela frogatzeko txostena aurkeztuko da.

3. Dirulaguntza eman baino lehen, onuradunak aitortpen bat egin beharko du, idatziz edo euskarri elektronikokoan, non aipatuko baititu aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta unean uneko ekitaldi fiskalean erregelamendu honi edo "de minimis" araubideko beste erregelamendu batzuei loturik jasotako gainerako laguntza guztiak.

4. Araubide honen araberrako laguntzak ez dira emanen hari eta frogatu arte onuradun bati emandako "de minimis" laguntzen zenbateko osoak ez duela gainditzen Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamenduan 3.2 artikuluan ezarritako muga, eta Erregelamenduan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla.

5. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak dirulaguntzen gainean ebartziko du, arrazoiak emanda.

6. Prozeduraren gainean ebazteko epea hiru hilabetekoa izanen da. Epea espresuki ebazpenik gabe bukatzen bada, ezetsizat joko da eskaera.

8. oinarria. *Onuradunaren betebeharrak.*

Onuradunak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak izanen ditu.

9. oinarria. *Onuradunaren gardentasun betebeharrak.*

Gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. artikuluan aipatutako entitateak behartuak daude gardentasun betebeharrak betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira, betiere gutxienez 5.000 eurora iritsiz gero.

Apartatu honetan ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua konputatuko da ondorio hauetarako, ez guztizko batura. Erreferentziako urteko negozio-zifra edo aurrekontua honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra edo gauzaturiko aurrekontua.

b) Kasua bada, dirulaguntza zein ekitalditan ematen den, ekitaldi horretan entitatearen organo eskudunak onartutako aurrekontua edo negozio-zifra.

Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak duten entitateek ondoren adierazten den informazioa eman beharko dute dirulaguntzarik jasotzen badute:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osara.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda eta dedikazio araubidea.

c) Entitateak kargudun bakoitzarengatik jasotako ordainsari gordinak eta gainerako konpentsazio ekonomikoak, kontzeptuen arabera banakatua, eta urteko kontuak, hauek jendaurrean erakutsi ahal izateko.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikokoan, bide telematikoa erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio. Informazioa bidaltzeko epea hilabetekoa izanen da dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten edo, hala bada, argitaratzen den egunetik hasita.

Informazio hori urtebetez egonen da aztergai Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen denetik hasita, eta gehienez 15 hilabetez informazioa kudeatzen duen organoan sartzen den egunetik hasita. Epe hori iraganik, informazioa argitaratzeko arduraren unitateak ofizioz kenduko du. Hala egin ezean, entitate onuradunak kentzeko eskatzen ahaliko du, eta gehienez ere hilabeteko epean kendu beharko da, eskaera egiten denetik hasita.

Entitateak ez badu gardentasun betebeharrak konplitu beharrik, aurreikusitako egoerak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitortpena aurkeztu beharko du.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira.

Onuradunak informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak galarazi gabe, haien bete ezean, onartutako dirulaguntza ordaindu gabe utziko da, eta, zenbatekorik kobratu bada, itzuli egin beharko da, eta aurrerakinak ere bai, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10. oinarria. *Ordainketa egiteko modua eta epea.*

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emanen da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera; aurretik, organo kudeatzaileak egiaztatu beharko du onuradunak dirulaguntza emateko arrazoi izandako xedeak eta gardentasun betebeharrak betetzen dituela.

11. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua bete dela eta hartutako funtsak erabili direla frogatzeko epea eta modua.*

Dirulaguntzaren helburua bete dela justifikatzeko, laguntzen eskaera bakarrean ereiteen aitortpena eginen da, eta azukre-industriarekin daukan kontratua aurkeztuko da.

12. oinarria. *Dirulaguntzaren bateragarritasuna.*

Laguntza hauek bateragarriak dira Foru Administrazioak berak edo beste administrazio publiko batzuek helburu bererako ematen dituztenekin, betiere errespetatzen badira Batzordeak 2013ko abenduaren 18an emandako 1408/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako mugak (erregelamendu horrek zehazten du nola aplikatu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua "de minimis" laguntzei nekazaritza sektorean).

13. oinarria. *Ezarritako baldintzak ez betetzearen ondorioak.*

1. Ebazpen honetan eskatutako konpromisoak bete ezean, dirulaguntza itzuli egin beharko da eta, bidezkoa denean, behar diren zehapenak jarriko dira.

2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35., 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz arautuko dira diru-itzulketak, arau-hausteak eta zehapenak.

3. Inguruabar bereziak edo ezinbesteko kasuak gertatu direla dakien onuradunak idatziz jakinarazi beharko dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, betiere kudeaketa organoak egiaztapenak egin baino lehen.

14. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Deialdi honetan ezarritako laguntzen onuradunaren zerrenda argitara emanen da, Nafarroako Gobernuaren web-orriko zerbitzuen katalogoko fitxa garatzen duen araudian ezartzen denaren arabera.

1.7. BESTELAKOAK

2/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 13koa, Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez xedatzen baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaz Batzordearen Erabakia, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen gainekoa.

Aintzat hartuz Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33. artikulua, urtarrilaren 7ko 1/2000 Lege Organikoak aldatu zuena,

EBAZTEN DUT:

Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaz Batzordearen 2019ko abenduaren 17ko Erabakia, ebazpen honi eranskin gisa gehitu zaiona, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an.–Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusia, Joseba Asiain Albisu.

ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZAZ BATZORDEAREN ERABAKIA NAFARROAKO PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOARI BURUZKO MARTXOAREN 22KO 12/2019 FORU LEGEAREN GAIANEAN

Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Aldebiko Lankidetzaz Batzordeak erabaki hau hartu du:

1. Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Aldebiko Lankidetzaz Batzordearen 2019ko ekainaren

17ko Erabakiaren bidez lantalde bat sortu zen Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea dela-eta sorturiko desadostasunak aztertzeko eta konponbiderako proposamen bat aurkezteko. Lantalde horretan izandako negoziazioekin bat, bi alderdien iritziz konponduta daude desadostasun horiek, konpromiso hauek hartuta:

a) 12/2019 Foru Legearen 25. artikulua dela-eta izandako auziari dagokionez, bi alderdiek uste dute Konstituzio Auzitegiaren doktrinan zehaztutako eran interpretatu behar dela agindu hori, eta, bereziki, ekainaren 11ko 137/2015 Epaiari jarraitu behar zaiola. Epai horretan, erreferendum mailako kontsultak kontsulta orokor gisa hartzen dira, kasuan kasuko lurralde eremuko hautesle guztiei egiten baitzaie dei. Horrenbestez, agindu horretan aipatzen den Foru Komunitate edo toki mailako herritar-galdeketa, erreferendum mailakoa ez denez, deitutako herritarren talde edo sektore jakin bati galdeketa egiteko izanen da, ez beste deusetarako.

b) 12/2019 Foru Legearen 27. artikulua dela-eta izandako auziari dagokionez, bi alderdiak bat datoz interpretatzean herritar-galdeketa parte hartzeko eskubidea izanen dutela galdeketa gaiak ukitzen dituen talde edo sektoreetako herritarrek; horrela, herritar-galdeketa ez zaio hautesleria guztia zuzenduko.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak konpromisoa hartzen du interpretazioko konpromiso hauek jasotzeko 12/2019 Foru Legea garatuko duten erregelamenduetan, edo, bestela, 12/2019 Foru Legea bera aldatuz.

2. Lortutako akordioaren bitartez, bi alderdiek uste dute konpondu direla agertutako desadostasunak eta bukatu dela azaldutako auzia.

3. Erabaki hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta erabaki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

MURILLO EL FRUTO

2019ko aurrekontuko 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. aldaketak. Hasierako onespina

Murillo el Frutoko Udalak, 2020ko urtarrilaren 24an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2019ko aurrekontuko 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. aldaketak.

Espedientea jendaurrean egonen da Idazkaritzan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun baliodunean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten alegazioak edo erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte.

Aplikatzeko diren arauak: irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikulua, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duena.

Murillo el Fruton, 2020ko urtarrilaren 24an.—Alkatea, Arancha Murillo Tanco.

L2001220

4. PROZEDURA JUDIZIALAK

NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Bake epaileen izendapena

Erabakiak, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak hartuak 2020ko urtarrilaren 13ko bilkuran, bake epaileak izendatzeari buruzkoak.

Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 101. artikulutik 103.era artekoetan xedatutakoari jarraikiz, bai eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan haiekin bat datozenetan xedatutakoari jarraikiz ere, kargu hutsak betetzeko deialdia egin ondoren, Gobernu Salak erabaki du honako epaitegi hauetako bake epaile titularrak eta ordezkokoak izendatzea, guztiak udalek hautatu baitituzte osoko bilkuretan:

Hirugarrena.—Atarrabiako Bake Epaitegia: Raúl Hernández Amillano eta Leire Erbiti Irisarri jaun-andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Laugarrena.—Aresoko Bake Epaitegia: Eva Gurucharri Pellejero andrea, bake epaile titular.

Bosgarrena.—Biurrun-Olkozko Bake Epaitegia: Alejandro Labiano Delgado eta Izaskun Ibañez Bedmar jaun-andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Seigarrena.—Garesko Bake Epaitegia: Javier Márquez Iruña eta Virginia Crespo Rodrigo jaun-andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Zazpigarrena.—Tirapuko Bake Epaitegia: Joseba Andoni Ojer Lacunza jauna, bake epaile titular.

Zortzigarrena.—Lezaungo Bake Epaitegia: Miguel Angel San Martin Ijurco eta Carmen López Salanueva jaun-andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Bederatzigarrena.—Iguzkitzako Bake Epaitegia: Jesús Javier Garín Zabala eta José Andrés Barandiarán Pérez jaunak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Hamargarrena.—Etaiuko Bake Epaitegia: Rubén Alegría Sos jauna, ordezko bake epaile.

Hamaikagarrena.—Sartagudako Bake Epaitegia: Cristina Ciriza Astrain andrea, ordezko bake epaile.

Hamabigarrena.—Azkoingo Bake Epaitegia: Juan Maunel Ruvio Berrendero jauna, ordezko bake epaile.

Hamahirugarrena.—Erroko Bake Epaitegia: Adriana Marmaun Juanena eta Juana María Urbelz Inda andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Hamalaugarrena.—Urrotz-Hiriko Bake Epaitegia: Itsaso Anabitarte Corres andrea, bake epaile titular.

Hamabosgarrena.—Lizoingo Bake Epaitegia: Miren Aintzane Colas Altamira andrea, bake epaile titular.

Hamaseigarrena.—Eguesko Bake Epaitegia: Rosario del Pilar Llive Guamba eta Mercedes Fernández Soliño andreak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Hamazazpigarrena.—Arangurengo Bake Epaitegia: Eva Pezonaga Asiain andrea, bake epaile titular.

Hemezortzigarrena.—Kasedako Bake Epaitegia: Ivan Cidraque Valbuena eta David Jauregui Oneca jaunak, bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Hemeretzigarrena.—Ribaforadako Bake Epaitegia: Sergio Borja Melendo jauna, bake epaile titular.

Izendatzeko erabakien aurka, Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan 12. artikuluan eta horrekin bat datozenetan eta Auzitegi-tako Gobernu Organoei buruzko 1/2000 Erregelamenduan 14. artikuluan xedatutakoarekin bat, gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zuzendua, hilabete-ko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen arrazoiengatik eta moduetan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an.—Gobernu idazkaria, Francisco Javier Isasi Barbier.

J2000975

NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Bake epaileen izendapena

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren erabakia, Baztango Bake Epaitegiko epaile titularra izendatzeari buruzkoa.

Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 101. artikulutik 103.era bitartekoetan xedatutakoari eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan horiekin bat datozenetan xedatutakoari jarraikiz, Justizia Auzitegi Nagusiak 2019ko azaroaren 4an emandako ediktuan (2019ko azaroaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) eskaerak aurkezteko ezarritako epea bukatutik, aurkeztutako eskaerak jaso eta horiek aztertu ondoren, Gobernu Salak, eskatzaileek aurkeztu dituzten merezimenduak baloraturik,

ERABAKI DU:

María José Zaldua Elizalde eta Juan Carlos Arregi Porras jaun-andreak izendatzea Baztango Bake Epaitegiko bake epaile titular eta ordezko, hurrenez hurren.

Izendatzeko erabakiaren aurka, Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan 12. artikuluan eta horrekin bat datozenetan eta Auzitegi-tako Gobernu Organoei buruzko 1/2000 Erregelamenduan 14. artikuluan xedatutakoarekin bat, gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zuzendua, hilabete-ko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen dituen arrazoiengatik eta moduetan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an.—Gobernu idazkaria, Francisco Javier Isasi Barbier.

J2000976

6. BESTELAKO IRAGARKIAK

6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Notificación de diligencia de comunicación sobre herencia yacente

Habiendo resultado imposible dirigirse a los representantes de las siguientes Herencias Yacentes por resultar desconocidos al no existir testamento o al haber renunciado los designados en él, se procede a publicar el presente edicto a los interesados en la misma en el Boletín Oficial de Navarra así como en el tablón de anuncios de las entidades locales correspondientes al último domicilio de la persona causante y al del lugar del fallecimiento para que, en cumplimiento del artículo 36.4 de la Ley Foral 13/2000 General Tributaria, comparezcan personalmente o debidamente representados en el plazo de un mes, contados a partir del día siguiente a la publicación de este edicto en la avenida Carlos III, número 4 (entrada por calle Cortes de Navarra), nivel 6, a fin de darse por notificados que del último trámite pendiente de notificación a fecha de fallecimiento del causante, debiendo acreditar su derecho a la herencia.

Se apercibe a los interesados en las Herencias Yacentes que de no comparecer en el plazo señalado por sí mismos o por sus representantes, se les tendrá por notificados, a todos los efectos y desde el día siguiente al del vencimiento del mencionado plazo, del último trámite pendiente de notificación a fecha del fallecimiento del causante, así como de las sucesivas actuaciones y diligencias que se dicten en el procedimiento de apremio, manteniéndose el derecho que les asiste a comparecer en él en cualquier otro momento. No obstante, la Resolución de enajenación de bienes embargados se notificará, la en su caso, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 99 de la Ley Foral General Tributaria.

Dentro del mes siguiente al día en que se tenga por efectuada la notificación, los interesados podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que lo dictó o reclamación económica administrativa ante el Tribunal Económico administrativo de Navarra.

Pamplona, 17 de enero de 2020.—El Director del Servicio de Recaudación, Xabier Ezpeleta Iráizoz.

HERENCIAS YACENTES QUE SE CITAN

Nombre: Doña María Cruz Sancha Blanco.
NIF: 15817417-H.
Fecha fallecimiento: 18-03-2015. Lugar de fallecimiento: Elizondo.
Último domicilio: Elizondo.
Acto que se notifica: Anulación de notificación de diligencia de embargo en entidad bancaria.
Año y número: 169/2019/2779.

Nombre: Doña María Cruz Sancha Blanco.
NIF: 15817417-H.
Fecha fallecimiento: 18-03-2015. Lugar de fallecimiento: Elizondo.
Último domicilio: Elizondo.
Acto que se notifica: 143 Notificación de diligencia de embargo en entidad bancaria.
Año y número: 2017/679873.

Nombre: Doña María Cruz Sancha Blanco.
NIF: 15817417-H.
Fecha fallecimiento: 18-03-2015. Lugar de fallecimiento: Elizondo.
Último domicilio: Elizondo.
Acto que se notifica: 143 Notificación de diligencia de embargo en entidad bancaria.
Año y número: 2018/797714.

Nombre: Doña María Cruz Sancha Blanco.
NIF: 15817417-H.
Fecha fallecimiento: 18-03-2015. Lugar de fallecimiento: Elizondo.
Último domicilio: Elizondo.
Acto que se notifica: 143 Notificación de diligencia de embargo en entidad bancaria.
Año y número: 2018/819737.

Nombre: Doña María Cruz Sancha Blanco.
NIF: 15817417-H.
Fecha fallecimiento: 18-03-2015. Lugar de fallecimiento: Elizondo.
Último domicilio: Elizondo.
Acto que se notifica: 143 Notificación de diligencia de embargo en entidad bancaria.
Año y número: 2019/925683.

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Hacienda Tributaria de Navarra Servicio de recaudación

Notificación de diligencia de comunicación de herencias yacentes

Habiendo resultado imposible dirigirse a los representantes de las siguientes Herencias Yacentes por resultar desconocidos al no existir testamento o al haber renunciado los designados en él, se procede a publicar el presente edicto a los interesados en la misma en el Boletín Oficial de Navarra así como en el tablón de anuncios de las entidades locales correspondientes al último domicilio de la persona causante y al del lugar del fallecimiento para que, en cumplimiento del artículo 36.4 de la Ley Foral 13/2000 General Tributaria, comparezcan personalmente o debidamente representados en el plazo de un mes, contados a partir del día siguiente a la publicación de este edicto en la avenida Carlos III, número 4 (entrada por calle Cortes de Navarra), nivel 6, a fin de darse por notificados que del último trámite pendiente de notificación a fecha de fallecimiento del causante, debiendo acreditar su derecho a la herencia.

Se apercibe a los interesados en las Herencias Yacentes que de no comparecer en el plazo señalado por sí mismos o por sus representantes, se les tendrá por notificados, a todos los efectos y desde el día siguiente al del vencimiento del mencionado plazo, del último trámite pendiente de notificación a fecha del fallecimiento del causante, así como de las sucesivas actuaciones y diligencias que se dicten en el procedimiento de apremio, manteniéndose el derecho que les asiste a comparecer en él en cualquier otro momento. No obstante, la Resolución de enajenación de bienes embargados se notificará, la en su caso, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 99 de la Ley Foral General Tributaria.

Dentro del mes siguiente al día en que se tenga por efectuada la notificación, los interesados podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que lo dictó o reclamación económica administrativa ante el Tribunal Económico administrativo de Navarra.

Pamplona 24 de enero de 2020.—El Director del Servicio de Recaudación, Xabier Ezpeleta Iráizoz.

HERENCIAS YACENTES QUE SE CITAN

Nombre y apellidos: Alberto Chivite Randez.
NIF: 015592692-A.
Fecha fallecimiento: 08/04/2015.
Lugar de fallecimiento: Tudela. Último domicilio: Cintruenigo.
Acto que se notifica: Anulación procedimiento.
Año y número: 169/2019/2768.

Nombre y apellidos: Alberto Chivite Randez.
NIF: 015592692-A.
Fecha fallecimiento: 08/04/2015.
Lugar de fallecimiento: Tudela. Último domicilio: Cintruenigo.
Acto que se notifica: Providencia de apremio.
Año y número: 141/2018/25592.

Nombre y apellidos: Alicia Carrasco Sandoval.
NIF: 015772169-B.
Fecha fallecimiento: 04/09/2016.
Lugar de fallecimiento: Pamplona. Último domicilio: Pamplona.
Acto que se notifica: Providencia de apremio.
Año y número: 141/2017/42947.

Nombre y apellidos: Andres Garcia Candelas.
NIF: 072685085-W.
Fecha fallecimiento: 10/04/2016.
Lugar de fallecimiento: Sesma. Último domicilio: Sesma.
Acto que se notifica: Providencia de apremio.
Año y número: 141/2017/42950.

Nombre y apellidos: Angel Aldave Echenique.
NIF: 015816275-A.
Fecha fallecimiento: 04/09/2016.
Lugar de fallecimiento: Elizondo-Baztan. Último domicilio: Elizondo-Baztan.
Acto que se notifica: Providencia de apremio.
Año y número: 141/2017/42940.

Nombre y apellidos: Angel Perez Medrano.
NIF: 015576716-N.
Fecha fallecimiento: 02/04/2016.
Lugar de fallecimiento: Tudela. Último domicilio: Tudela.
Acto que se notifica: Providencia de apremio.
Año y número: 141/2017/42932.

Nombre y apellidos: Antonia Cordero Lopez.
 NIF: 025037563-Q.
 Fecha fallecimiento: 06/03/2016.
 Lugar de fallecimiento: Estella. Último domicilio: Estella.
 Acto que se notifica: Providencia de apremio.
 Año y número: 141/2017/36530.

Nombre y apellidos: Calixto Jaunarena Elizalde.
 NIF: 072660527-P.
 Fecha fallecimiento: 15/08/2016.
 Lugar de fallecimiento: Pamplona. Último domicilio: Elizondo-Baztan.
 Acto que se notifica: Providencia de apremio.
 Año y número: 141/2017/42957.

Nombre y apellidos: Carlos Escudero Martin.
 NIF: 006478673-X.
 Fecha fallecimiento: 22/02/2016.
 Lugar de fallecimiento: Pamplona. Último domicilio: pamplona.
 acto que se notifica: pROVIDENCIA DE APREMIO.
 Año y número: 141/2017/36533.

Nombre y apellidos: Carmen Gracia Gonzalez.
 NIF: 001421715-Q.
 Fecha fallecimiento: 14/10/2015.
 Lugar de fallecimiento: Pamplona. Último domicilio: Pamplona.
 Acto que se notifica: Providencia de apremio.
 Año y número: 141/2017/36540.

Nombre y apellidos: Carmen Moneo Lainez.
 NIF: 015574403-E.
